

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

8/2026 Foru Araua, maiatzaren 20koa, onartu duen osoko bilkuraren erabakiari dagokiona, promulgatu eta argitaratu dadin. Foru Arauak 3/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 21ekoa, baliozkotzen du, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, eta araubide iragankor bat ezartzea ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak finantzatzearen arloan

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "8/2026 Foru Araua, maiatzaren 20koa, onartu duen osoko bilkuraren erabakiari dagokiona, promulgatu eta argitaratu dadin. Foru Arauak 3/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 21ekoa, baliozkotzen du, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, eta araubide iragankor bat ezartzea ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak finantzatzearen arloan"; aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

8/2026 FORU ARAUA, MAIATZAREN 20KOA, 3/2026 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, APIRILAREN 21EKOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPENA EMATEKO ARABAKO ZERGA ARAUDIRA EGOKITZEARI BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN, ZERGA BEREZIE TAN ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGAN EGINDAKO ZENBAIT ALDAKETA, ETA ARAUBIDE IRAGANKOR BAT EZARTZEA IKUS-ENTZUNEZKO LANAK ETA ZUZENEKO IKUSKIZUNAK FINANTZATZEAREN ARLOAN

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, apirilaren 21eko 3/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, eta araubide iragankor bat ezartzea ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak finantzatzearen arloan.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da apirilaren 21eko 3/2026 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onspena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, eta araubide iragankor bat ezartzea ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak finantzatzearen arloan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 20a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA